

NAÁSI (b). adberbioa. Nahasi, nahas-mahas, batera. • Mezclado, revuelto. *Armaixo aretan txorixuak eta gailletak danak naasi dare./ Maixu orrek aditza ta deklinabidea dana naasi esplikatzen dau./ Neskak eta mutillak naasi juaten ga autobusian.*

NAASKILLA, naaskillie izena. (Aramaio, Leintz) Nahaspila.

NAASTÁILLE, naastailía (c). adjektiboa. Gauzak nahastu zalea. • Liente, salsero, embrollador. *Naastailia ba, saltserua dana ero, egixak beti esate ezittuana. Klem./ Ezixok kaso geixegi eiñ ari naastaille utsa dok eta. Ik. baztar-naástaille.*

NÁASTE1. náaste, náastia (b). izena. Nahasketa. • Mezcla. *Ze naaste diarduzu eraten./ Esniakin einddako naasten bat da Baileys-a. 2. náaste, náastia (b). izena. Embrollo. *Egundoko naastia sortu da taillerrian. Ik. naáste-borráste.**

NAÁSTE-BORRÁSTE, naáste-borrástia (b). izena. (adierazkorra.) Nahastea. • Enredo, embrollo. *Frantsesa ta inglesa batera ikasten diardu ta naaste-borraste demasa dauka./ Auzuan naaste-borrastia urten dau urak diela ta eztiela. Ik. kakánaaste, náaste.*

NAÁSTU (a). da-du aditza. NAASTAU. Mezclar(se), revolver(se). *Len arduai ura naasten zotsen tabernarixak./ Batidoriakin ondo naastu ta zerbidu.*

1. NÁBAR, nabárra (d). adjektiboa. Tono ilunak dituen kolorea. Grisa, marroia...; baita, Klementak dionez, zuria eta kolore ilunak nahasi ere. • Pardo. *Bat muturgorrixa, beste bat baltza, beste bat pinttua, beste bat zurixa, beste bat nabarra (ardiak). Igual egongo da nabarra ardik onena kuadrillan. Luis. Galdu samartua. Katuez entzuten da inoiz. Ik. nabárka, nabarkóte.*

2. NÁBAR, nabárra (d). izena. Laian egin aurretik zoia ebakitzeko pasatzen zen tresna. Kutxila zorrotz eta zuzena partika bati erantsia. Aparato para facilitar el layado compuesto de una pértiga y una cuchilla afilada y recta. *Laixan eiñ aurretik nabarra pasatze zuan, zaldiz, astoz, ero iru lau lagunen artian tiraka igual, gero laixan illaran jarritta errezaio eitteko. Klem. Izagirrek dionez, goldarekin egindako ildoak sakontzeko ere erabiltzen zen lur bustintzuetan. Sin. ortz-bakar.*

NABAR-ETXE, narbar-etxia "Estructura de madera donde se coloca la cuchilla llamada narbar" (SB Eibetno).

NABÁRKA, nabarkía (d). adjektiboa. Parduzco. *Troskia da kolorez marroixkia, nabarka ortaikua. Don. Sin. nabarkóte.*

NABARKÓTE, nabarkotía (d). adjektiboa. Nabar samarra. • Parduzco. *Txori pikuluze nabarkote bat dok ori. Don. Sin. nabárka.*

NABARTU1. nabartu aditza. "Ile zuriak ateratzen direlako ilea kolore askotarikoa izan.(Lar Antz). *Aspaldian majo nabartu jako illia.*" (Lar Antz). **2. nabartu** aditza. "Edurra sendotzeke egon, apur bat zurituta bakarrik. *Dana nabartuta dao, ta Bitorixara jun in bi za?*" (Lar Antz). Sin. zurinabartu.

NABO, nabua izena. (Eibar) Nabo. Sin. arbi.

NÁGI1. nagi, nagíxa (a). adjektiboa. Alferra. • Vago, -a, perezoso, -a. *Lanerako nagixa da, baiña ez parrandarako. Don.k dio nagi gehiago esaten zaiola gizakumeari eta narras emakumeari. Nagixa*

gizakumia geixao esaten dok. Emakume bat baldin bada ba lanik egin nai eztabena ta zea, ño, narrasa dok oixe. Don. Sin. alper. Ik. zuri. 2. nagi, nagíxa (d). adjektiboa. Nagikeria. Ez da entzuten honako bi esapideetan ez bada.

Ez da entzuten ondorengo bi esapideetan ez bada. **nagíxak émon** (d). esapidea. Nagikeriaren mende egon. *Erri aretara aillegau giñanian nagixak emon zoskun da ezkiñuan aurrera segidu.*

nágixak etára (c). esapidea. Luzaz geldi edo lo egon ondoren besoak zabaldu giharreak tinkatuz. • Desperazarse estirando los brazos. *Ala mutikua!, nagixak etara ta jantzi eskolarako./ Eztakitt ze pasatze jatan gaur, egun guztia nagixak etaratzen diardut.*

NAGÍALDI, nagialdíxa (c). izena. Alperraldia. • Temporada en que no se tiene ganas de trabajar. *Ezta olakua, baiña aspaldíxan egundoko nagialdíxa dauka.*

NAGÍARE, nagíaria (d). izena. Lur landua leuntzeko erabiltzen den hesizko edo oholezko tresna. Ganean harri handi batzuk jarri ohi zaizkio pisua hartzeko. *Elusu aldian da esixa, da oni alperra, da guk erpillarrixa ta nagíaria. Don. Sin. esi. Ik. bóstortz, alper.*

NAGIKERÍXA, nagikerixía (b). izena. Alferkeria. • Pereza, dejadez. *Atsalde osua nagikerixan pasau dot. Sin. alperkeríxa. Ik. nagi. nagikerixan egon (b). esapidea. Holgazanear. *Nagikerixan egonda etarako dozu kursua.**

NAGÍTTU (a). da-du aditza. Nagi bihurtu. • Volver(se) perezoso. *Ziero nagittuta nago aspaldian./ Beruak nagittu eitten dau. Sin. alpértu.*

NAGITTURRI, nagitturrixe izena. (Aramaio) Batzuetan ura ematen duen iturria, eta beste batzuetan ez. *Orrek ekiñ ezkeru, nagitturrixek, ya ur faltaik eztau. (Orm Aram).*

NÁI NEI.1. náí, náixa (b). izena. Gogo (adibideko adieran bakarrik). • Voluntad, acto de querer. *Fraille juatia bada bere naixa, joan deilla. naiko, naikúa* adjektiboa. Hitz konposantuaren bigarren zati bezala (-NAÍKO, -naikua) nahi duena, pretenditzen duena. *Barregarri-naiko liburu bat egin dau, baiña graziarik eztaukanak eztauka./ Aundi-naiko etxia dauka, baiña estilo gutxikua.2.*

nái izan (a). du aditza. Querer. *Zeuk pe eztakizu ze nai dozun. Nai izan zeban./ Nai zeban./ Nai dau./ Nai izango dau edo naiko dau. Angiozar eta Uberan gura gehiago, adinekoek, batik bat. Sin.*

gúra ízan. nai aiña zenbatzailea. Nahi adina. *Orrek nai aiña diru dauka. Sin. nai ainbat, nai beste. nai dabenak nai dabena esango dau (b). esapidea. Digan lo que digan. *Nai dabenak nai dabena esango dau, baina Riojako arduan modukoik etxaok. 3. náí izan* (d). "Baietz... Nai dozu ori zure amak badakixela? (Baietz ori zure amak jakin)". (Lar Antz). **4. nai izan** (c). dio aditza. Maite izan. • Querer a alguien, amar. *Umiak asko nai zotsan amandriai./ Orduan umiei nai zixuen e. Jjp. (AA BergEus, 340. o.) Adinekoen artean arrunta. NOR-NORI-NORK. Sin. maite, gure izan (Lein).**

NAI AIÑA zenbatzailea. Nahi adina. *Orrek nai aiña diru dauka. Sin. nai ainbat, nai beste.*

NAIÉZ, naiéza (c). izena. Desasosegua, adore falta osasunez ondo ez sentitzeagatik. • Desasosiego, malestar, desgana por indisposición. *Ondoeza daukanian personiak, naieza, gaixo antzian dabillenan. Klem./ Kalenturaik eta ezer eztaukat, baiña alako zer bat, naieza; ta etxata juaten.*

NAIGABIA EMON esapidea. (Eibar) Doluminak eman. *Petrari naigabia emotera juan non eta an topau jonat Andre Madalen kantatzen. (AAG Eibes).*

NAIKO1. naiko graduatzailea. (Leintz) Bastante. *Naiko ondo emoten juek bazkaltzen./ Naiko*

garbixa jak egune. Bergara aldean, osteran, ez da erabiltzen. **Bastante** esaten da, edo bestela **dezente** edo **samar**. **2. naikúa** (a). zenbatzailea. Aski. • Suficiente. *Oindio eztozu naikua jan./ Aurten be naikua jente etorri da jaixetara. naikúa lan* (b). esapidea. Zerbait ez dela erraza izango adierazten duen esapidea, esaldi hasierakoa, normalean. *Naikua lan izango dau aurten aprobazten./ Naikua lan dauka arek bere buruakin. naikua ta geixegi* (b). esapidea. Gehiegi. • más que suficiente. *Ixildu zaittez. Naikua ta geixegi daukazu orrekin.*

NAIKO, naikúa adjektiboa. Hitz konposantuen bigarren zati bezala(-NAÍKO, -naíkua) nahi duena, pretenditzen duena. *Barregarri-naiko liburu bat egin dau, baiña graziak eztaukanak eztauka./ Aundi-naiko etxia dauka, baiña estilo gutxiak.*

NÁITTA (a). adberbioa. Apropos, berariaz. • Queriendo, a propósito. *Mutikuak naitta apurtu dau florerua./ Naitta be ezin dda alako kertenkerixaik eiñ.* Sin. **apropos. naitta náiez** (b). adberbioa. Derrigor. • A la fuerza. *Biar Donostiara joan biarra daukat naitta naiez.* Azen.: naitta naiéz ere bai. Sin. gure eta gure ez (Lein.). Sin. **derrigor. naitta naiésko, naitta naiezkoa** (b). izenlaguna. Condición necesaria, "sine qua non". *Lan ontarako naitta naiezkoa da euskeria.* Sin. **derrigorreko.**

NAITTÁSUN, naittasúna (d). izena. Zerbaitetarako edo norbaitenganako desioa, gogoa, maitasuna. *Ezkundu eitteko lelengo bieko dau ba, lelengo ezautu, gero kariñua, alkarren kariñua, gero naittasuna.* Don. Gutxi entzuna.

NAIXÁO IZAN (a). du aditza. Nahiago izan. • Preferir. *Naixao dau etxian gelditzia pezetia gastatzia baiño.* NAIXAGO NEUKE: ojalá. *Naixao neuke edurra eingo baleu. naixao neuke: ojalá* Naixao neuke: ojalá. *Naixao neuke edurra eingo baleu.*

NAIZ izena. **1. naiz** (b). juntagailua. Nahiz (disjuntiboa). • Ya, bien sea. *Neri berdin jatak naiz goizian naiz atsaldian./ Gero, irun esate jakon, goruetan naiz txabillan gizonak.* Aniz. **2. naiz (eta)** juntagailua. Aunque. *Lana akabau biarra daukat naiz (eta) amabixak jo. Eta* esan edo isildu egin daiteke.

NAKORROTU aditza. (Aramaio) "Narrastu, okertu, ibili ezinka egon. *Ori nakorrotu ra mouten.*" (Orm Aram).

NANA(N) EIÑ Ik. ñan-ñan eiñ.

NÁNO, nanúa (c). adjektiboa. Txikia, kaskarra. • Pequeño, -a, enano, -a. *Erozeiñ ume nanok jote joskuk adarra./ Benetan nanua dago zuen txakurra.*

NANÓTU (c). da-du aditza. Ahuldu, koittautu. • Debilitar(se), volver(se) cuitado. *Amandria, gaixua pasau zeban ezkeru, ziero nanotuta dago./ Uste dot landara au azi biarran nanotu ein ddala.* Ik. **gizajotu, koittáutu.**

NANUKERIXA, nanukerixia aditza. (Eibar) "Doilorkeria, zikoizkeria. • Ruindad. *Aundiki guran eta nanukerixia beti aldian.*

NÁPAR, naparra (b). izena. Navarro, -a. *Naparruatik etorritakuak, naparrak.*

NAPÁR-ÉGOE, napár-égoia (c). izena. NAPARRAIZE. Hego-Ekialdetik, Nafarroa aldetik, jotzen duen haizea. Oso epela eta iraunkorra izaten da. • Viento del Sureste, muy templado y duradero. *Uberan Bergako kanpaiak entzuten die napar-egoia dabillenan.* Ik. **égoe, -i.**

NAPÁR-ÉUSKALDUN, **napár-éuskalduna** (b). izena. Euskaraz dakien naparra.

NAPAR-JÉNTE, **napar-jentía** (c). izena. Nafarra. Ironiaz edo broman, gehienetan. *Napar-jente au gogorra dok, e. Orrekin broma gutxi. Bizkaitar-jente, kastillano-jente etab. ere entzun daitezke, eta baita inoiz Gorriz-jente (Gorriz baserrikoak) eta horrelakoak.* Ik. **napar-kásta**.

NAPAR-KÁSTA, **napar-kastía** (c). izena. Nafar jatorrikoa. *Uste juat napar-kastia dala bai aittan eta bai aman partetik. Napar-jente zentzuan ere entzun daiteke.*

NÁPARRI, **náparrixa** **NÁPARRIXA**, -IA. Adinekoek /a/ berezkoaz ere bai: **náparrixa**, -ia. **1. náparrri**, **náparrixa** (c). izena. Nafarrerria. • Viruela. *Arpegi guztia pikauta zeukan, gaztetan naparrixa pasauta.* **2. náparrri**, **náparrixa** (d). izena. Ganaduen gaitza. Glosopeda. *Auan banaka-banaka asko, baiña bat txarra naparrixía. Ankamiña be esaten dok, paiña emen naparrixía. Don.* Ahoan agertzen omen da. Sin. **ankamiñ**.

NÁPARRI-ÉTXE, **náparrri-etxía** (d). izen propioa. XX. mendearen hasieran Ondartza baserriaren ondoan zegoen etxea; nafarreriaz jotakoak sartzen ziren bertan. • Lazareto para enfermos de viruela que se encontraba en las proximidades del caserío Hondartza.

NÁPARRUA (a). toponimoa. Navarra. Berezko /a/z. **Nafarroa: berez ez da etorriko ardoa** esaera. (Antzuola) (Lar Antz).

NAR Ik. **Iar**.

NARANJA Ik. **Iáranja**.

NARDÁKA **1. nardáka**, **nardakía** (d). izena. Nardaia. Metro erdi edo gutxiagoko partika, katea erantsia duena. Lera garraiatzeko eta narraseko beste zama batzuei tiratzeko erabilia. • Pértiga corta con cadena adosada utilizada para arrastrar la narria y otras cargas. **2. nardáka**, **nardakía** (d). izena. Nardaia. Enborrak tatarras garraiatzeko tresna: burdinazko ziria kate bati erantsia. • Cuña de hierro con una cadena adosada, que se utiliza para acarrear troncos. *Zirixa sartze jakuan tronguai puntatik eta gero narrasian etaratze zuan. Nardakia. Don.*

NÁRRAS Ant. **narras**, **narras**, **narras**.

NARRASÉKO, **narrasekúa** (c). izenlaguna. Erretenean etorritako uragatik esan izan da. • Dícese del agua que llega a una casa por una acequia. *Eztakitt ze moduzkua egongo dan ur ori erateko, narrasekua da ta.*

NARRASKERÍXA, **narraskerixía** (b). izena. Dejadez, abandono. *Narraskerixaz etzeban etara titulua.*

NARRÁSTU **1. narrastu** (c). da-du aditza. Narras bihurtu. • Volverse desaliñado, viejo. *Oso narrastuta topau dot zuen aittajuna./ Gripiak ziero narrastu dau koittaua.* **2. narrastu** (c). du aditza. Eguraldia eskastu. • Volverse desapacible el tiempo. *Goizian alako egualdi ona zeuan da atsaldetako ziero narrastu dau.* Lanbroa sartzen denean erabiltzen da, batik bat.

1. NARRÚA JO (b). dio-du aditza. Hacer el amor, follar. *Narrua joteko ezkondu ero pagau ein bia*

dala ziñuan lenguan batek etsitta. Sin. **narrútan eiñ, txórtan eiñ, txortía jo, jo**.

NARRUA JO1. narrúa jo (b). dio-du aditza. Hacer el amor, follar. *Narrua joteko ezkondu ero pagau ein bia dala ziñuan lenguan batek etsitta*. Sin. **narrútan eiñ, txórtan eiñ, txortía jo, jo. 2.**

narrua jo (c). esapidea. Danborra jo. *Kalerik kale narrua josten, alkate jaunán pregoia irakorteko*. (AAG Eibes).

2. NARRUA JO (c). esapidea. Danborra jo. *Kalerik kale narrua josten, alkate jaunán pregoia irakorteko*. (AAG Eibes).

NARRUAUNDI, narrúaundixa (d). adjektiboa. (adierazkorra.) Jatun handia. *I, narruaundi, oinddio eztok naikua, ala?*

NARRUGORRÍXAN (a). adberbioa. NARRUGÓRRI. Biluzik. • Desnudo. *Narrugorrixan eitten da onduen lo*. Sin. **billósik, narrútsik. narrugorrixan jarri** Desnudarse. *Narrugorri jarri erain josten*. Sin. **billóstu**.

NARRU-JOTÉILLE, narru-joteillía (c). izena. Narrutalaria. *Etxuat ezautu sekula alako narru-joteilleik*. Sin. **narrutalári, txortalári**.

NARRU-KÉNDU, narru-kendúa (c). izena. Urratu handia. Sin. **azal-kéndu**.

NARRÚSENDO, narrúsendua (c). adjektiboa. Caradura (zentzurik gogorreanean). *Narrusendo zittal bat egon zan Eibarren mediku*. Ik. **arpégigógor. nárru sendúa euki** (c). esapidea. Tener muchísima cara, pocos escrúpulos. *Polítiko geixenak narru sendua dauke*. "Sendo"-k "lodi" esan nahi du Bergaran. Baita NARRU BELTZA EUKI. *Baiña orrek narru beltza euki, tta ezek inporta ez*. **NARRUA EUKI** soilik ere bai: *Ik daukak narrua ik./ Ire narruakin abarkak pe ein leizkek*.

NARRÚTA, narrutía (c). izena. Narrujotze ekintza. • Fornicación. *Orrek narrutia besteik eztauka buruan./ Len asko Bilbora joate zan narrutara./ Zer oinddio eztozue naikua narruta eiñ, ala?* Ik.

artuemon, eginkizun. narrútan (b). adberbioa. Narrua jotzen. • Haciendo el amor, follando. *Narrutan jarduén jente guztian aurrian. narrútan eiñ* Narrua jo. *Zer narrutan eitteko goguakin ago, ala?* Sin. **txakillétan, txórtan eiñ, txortía jo, narrúa jo, jo**.

NARRUTALÁRI, narrutalaríxa (c). izena. Narrujolea. • Follador, -a. *Ezpanaundi ori narrutalari ona ei dok*. Sin. **narru-jotéille, txortalári**.

NARRUTÁLDI, narrutaldíxa (c). izena. Narru-jotze saioa. *Egundoko narrutaldixa ein juén*. Sin. **txortáldi**.

NARRÚTSIK (c). adberbioa. Narrugorrian. • Desnudo. Gutxi samar erabilia. Sin. **billósik, narrugorrixan**.

NARRÚTU1. narrutu (b). du aditza. Narrua kendu. • Desollar, pelar. *Konejua narrutzen diardu amak*. **2. narrutu** (b). du aditza. Desplumar en el juego. *Azkoittiar batzun kontra asi giñan musian da narrututa urten giñuan*. Gehienetan NARRUTUTA URTEN, baina beste forma batzuk ere bai: Ikusikok, akordau orduko narrutuko abe.**3. narrutu** (c). du aditza. Norbait gogor kritikatu. • Despellejar, criticar duramente. *Zenbat aldiz narrutu ete gaittue gure ezjakiñian...*

NARRUTXIPÍTTA, narrutxipittía (d). izena. NARRUTTIPITTA. Larruzko tira mehea. Behiaren samarretik zintzilik egon ohi direnak, adibidez. • Tirilla de cuero. *Borlak, ero narruzkuak badie*

txipittak pe esate jakue, aurrian ebaitta, borlen moduan ebaitta. Txipittak, narrutxipittak. Don. Sin. txipítta.

NARRU-ZOPÍTTA, narru-zopittía (d). izena. Larru txaplata. Ik. **zopitta**.

NASÁI1. nasái (b). adberbioa. Ancho, holgado, flojo. *Oso nasai dauzkat prakak.* Elosun LASAI eta honen eratorriak. **nasáitxo** (c). adjektiboa. Nasaiegi. *Nasaitxo daukat zinturoia.* **2. nasái, nasáixa** (c). adjektiboa. Ancho, -a, holgado, -a, flojo, -a. *Alkondara nasaixak gustatzen jako./ Ameztei, etxealde nasaixa da, ero ganau-etxe ona da. Don.* **3. nasái, nasáixa** (d). adjektiboa. Lasaia. • Tranquilo, -a. *"Nasaixa zan ori" tta olakuak entzuten zien lenao; trankilla, puxkat ola arlote samarra ero. Klem. Gaur egun trankilla besterik ez da ia entzuten. Sin. trankill.* **4. nasái** (d). adberbioa. Lasai. • Tranquilamente. *Ementxe, nasai, iñorako prixa barik.* Gipuzkeraz **lasai** arrunta bada ere hemen **nasai** oso nekez entzuten da zentzu honetan. Sin. **trankill**.

NASAITTÁSUN, nasaittasúna (d). izena. Lasaitasuna. Ez da apenas entzuten. *Trankilidade bai ostera*

NASAITTU aditza. **1. nasaittu** (b). du aditza. Lasaitu. • Aflojar, ensanchar. *Prakak estugi neuzkan da nasaitzera eruaittut. zintturóia nasáittu* esapidea. (eufemismoa.) Kaka egin. *Zintturoia nasaitzera noia ta belaxe nator.* Fintasunez hitz egiten denean erabiliak. **2. nasaittu** (c). da-du aditza. Lasaitu. • Tranquilizar(se). *Dirua eskutan ikusi zebanian nasaittu zan.* Gutxi erabilia; **trankilddu** entzuten da. **3. nasaittú, nasaittúa** (c). izena. Lasaitua. • Respiro, desahogo, alivio. *Kreditua pagau zebanian arek artu zeban nasaittua./ Diruik etzan agertu baiña nasaittu ederra artu giñuan dokumentuak agertu zienian./ Arek artu zeban nasaittua etzeukala kantzerrik jakin ebanian. Hau, ostera, erabilera arruntekoa da.*

NATIBITTÁTE EGUNA (b). izena. 25 de diciembre, día de la Natividad del Señor. **Natibittate, ase ta bete, San Estebantxe, berriz be len letxe** (c). esaera. San Esteban hurrengo eguna da, abenduaren 26a: Gabonak pasatutakoan berriz ere eskasidadea.

NATÚRA, naturía (c). izena. La vulva de los animales. *Gaixua sortu jakon naturan da kendu ein giñuan.* Ik. **txuringa**.

NATÚRAL1. natural, naturála (b). adjektiboa. Normal, natural. *Auraxe dok personia naturala./ Gaurko berua ezta naturala. naturala dan moduan* (c). esapidea. Normala den bezala. Formula oso erabilia. *Naturala dan moduan kokoteraiño jeuan iñon bendian egoten. naturala ez izan (norbait)* esapidea. Zentzun gutxikoa, gizalegean jokatzeko ez duena izan. *Aura ziero naturala dok olako gauzak eitteko?/ Arek erozer gauza, eztok persona naturala ta.* **2. natural** (c). adberbioa. Natural, sin afectación. *Oso natural egon die ezkonbarrixak./ Monzon ezautu giñuan, orrek eitten zeben euskeria natural. Don.*

NATURALÉZA1. naturaleza, naturalezía (b). izena. Naturaleza. *Naturalezia asko ondatu da aspaldixan.* **2. naturaleza, naturalezía** (c). izena. Izakera fisikoa. • Constitución física. *Ainbeste alkol eran da olako osasuna eukitzeko derrior naturaleza gogorrekua biar./ Aren naturalezia eukitzeaittik etxakixat ze emongo neuken.* **NATURALEZA GOGORRA**, batik bat.

NÁUSI1. nausi, nausíxa (b). izena. Nagusia. Etxeko jauna, erreterro-baserri baten edo lantegi edo negozio baten jabea. • Dueño, patrón. *Taillerrian ori nausixekin ondo konpontzen da./ Nun dago etxeko nausixa? Gauza baten jabea ere bai. Zein dda kotxe orren nausixa? Esanahi honetan ez da asko entzuten.*

Ik. **jábe, ugézaba. Etxe batzutan nausi izatia baiño beste batzutan morroe obe** esaera. (Lar <i>Antz</i>). **náusi izan**1. **nausi izan** (b). esapidea. Onena izan. • Ser el, la o lo mejor, el amo. *Pelotan Retegi da nausi oinddio./ Janakin artzeco ardaua nausi.* **2. nausi izan** (c). esapidea. Agindu (irudizkoa). *Gure gazte denporan lana zan nausi, etzan beste kontuik egoten./ Gaur, sekula baiño geixao, dirua dok nausi.* **2. nausi, nausíxa** (b). adjektiboa. El mayor (de los hermanos, de la familia, etc.). *Anai nausixak golfua urten dau gure familixan.* **NAUSI**3. **nausi, nausíxa** (b). adjektiboa. Adin handikoa. • De mucha edad. *Orren gurasuak oso nausixak die.* **4. nausi, nausíxa** (b). adjektiboa. Mayor de edad. *Nausixak bakarrik pagatzen dabe, umiak ez./ Pelikula ori nausixendako da.*

NAUSÍTTU1. **nausítu** (d). da aditza. Nagusitu, irabazle edo gailen gertatu, lehiaketa batean, batik bat. • Dominar, vencer, sobre todo tratándose de competición. *Pelotan errez nausittu zien uberatarrak.*2. **nausítu** (c). da aditza. Persona handi egin. • Hacerse una persona mayor. *Puxkat nausittu zanian alde in zeban etxetik./ Nausittutako jentia komeni da ikazgiñarako.* Sin. **aundi egin.**

NAZÍÑO, naziñúa (b). izena. Nación.

NAZIONALÍSTA, nazionalistía (a). izena. Nacionalista. Ik. **abertzále.**

NÉBERA1. **nébera, néberia** (d). izena. Elurzuloa. Ik. **edurzúlo**. **2. nébera, néberia** (d). izena. Antzinako hozkailua. Ik. **fréskera.**

NEBERALDE toponimoa. Elosuko Agarre baserriko saila, elurzuloa egondako lekua.

NEBERETA toponimoa. Gorkako bidean Amezti baserria baino gorago dagoen azken bihurguneari "Neberetako bueltia" esan ohi zaio. Hurbil da elurzuloa.

NÉGAR1. **negar, negárra** (a). izena. Lloro, llanto, lágrima. *Ume negarrak entzuten die aldamenian.* **négar eiñ** (a). du aditza. Llorar. *Gero alperrik izango da negar eittia.* **négar eráiñ** (b). dio aditza. Hacer llorar. *Abadiak negar erain zotsen ezkonbarrixei bodako sermoian.* **negarrái émon** (c). dio aditza. Echarse a llorar. *Entzutiaz bat negarrai emon zotsan.* **negárrak úrtten** (b). dio aditza. Saltársele las lágrimas. *Amai negarrak urtetze zotsan semiana jakin zebanian.* ZERK urten. **négarrez** (a). adberbioa. Llorando.

négarrez úrtu (c). esapidea. Negar asko egin. *Nere bisabuelok eta, garbi esaten dotxut, bisabuelak eta, onek gauzok ikusi balittue negarrez urtu eingo zien.*2. **negar** Ik. **kandéla-négar, ur-négar.**

NEGARGÁRRI1. **negargarri, negargarríxa** (a). adjektiboa. Penagarria. • Lamentable, deplorable. *Negargarrixa da ain gazteik iltzia.* Ant. **N.** **2. negargarri** (c). adberbioa. Oso gaizki. • Rematadamente mal. *Gerriko miñez negargarri ibilli zan sasoi baten./ Aspaldixan negargarri jabik gure fabrikia.*

NEGARGÁRRIKERIXA, negargárrikerixia (c). izena. Negargura ematen duen zera. *Azkenengo uraundixa pasauta gero Laudiotik pasau giñan da aura zan negargarrikerixia./ Kontuz ibilli zaittie politikiaekin negargarrikerixan bat ein barik.* Lehengo zaharrek dezente erabiltzen zuten.

NEGARGÚRA, negarguría (a). izena. Negar egiteko gogoia. • Ganas de llorar. *Negarguria emoten*

dau Bosniakuak. negarguriak egon, negarguria euki (a). esapidea. Negar egiteko gogoia izan. *Negarguriak nago ta eztakitt zegaittik.*

NEGÁR-MÁRKO, negár-márkua (b). izena. NEGAR-MALKO. Negar-malkoa. • Lágrima. *Ale, sikatuizu negar-markuak paiñoluakin.* NEGAR-MALKO ere bai adinekoek. Ik. **márko**.

NEGAR-MUSKIRIXU Ik. **muskiríxu**.

NEGÁR-PLÁNTA, negár-plántak (a). izena. Negar itxurak. • Llanto simulado. *Zelako negar-plantak eitten dittuan gure maiñosiak./ Bueno, negar-plantaik ezidazu eiñ neri; bi belarrondoko emungotsut eta orduan benetan eingo zu.* Pluralean, batik bat, baina *negar-plantia ugari eta horrelakoak ere arruntak dira.*

NEGARRÁLDI, negarraldíxa (b). izena. Negar saioa. • Llorera. *Negarraldi majua ein zeban aitta il jakonian.*

NEGÁRRONTZI, negárrontzixa (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Negartia. • Llorón, -a. *Ixo ume, ezta izan biar ain negarrontzixa.*

NÉGARTI, négartixa (b). adjektiboa. Llorón, -a. *Oso negartixa ziñan txikittan.* Ik. **negárrontzi**.

NEGAR-ZOTIÑ, negar-zotiña (c). izena. Gimoteo.

negár-zótinka (c). adberbioa. Gimoteando. *Negar-zotinka dago goiz guztia nobixuak laga dotsala ta.* Ik. **zótiñ**.

NEGÁU1. negáu (c). du aditza. Ukatu emandako hitza edo egindako tratua. • Negar la palabra dada o el compromiso adquirido. *Gauza bat ainddu lenengo ta gero ezetz esaten danian, negau. Klem./ Negau eitten dau dirua laga notsana.* Sin. **ukátu**. **2. negáu** (c). da aditza. Ukatu zerbait egitera. • Negarse a algo. *Juezana presentatzera negau zan.* Sin. **ukatu**. **3. negáu, negáua** (b). adjektiboa. Zerbaiteko balio ez duena. • Negado, -a. *Ondo negaua da kantuan./ Txofer moduan negaua da.* ZERTAN negaua, batik bat.

NEGOZIANTE, negoziantia (b). izena. Negociante.

NÉGOZIO, négoziua (a). izena. Negocio.

NÉGU, negúa (a). izena. NEGUGORRI. Invierno. NEGUGORRI, negugorrixa. El crudo invierno. *Udazkenian egurra xeetu ezian negugorrixan izaten die kontuak./ Eztakitt ze egun zan, baiña negugorrixa zan beintzet.* **negu eta uda** (c). esapidea. Beti, etengabe. *Gero jantzixa be izaten zan ba, abarketak eta galtzak, negu ta uda, ez gero kanbixatzeko zerik. Udan einddako soiñekua Gabonzarko ferixakuan be, jertsiakin. Hil.*

NEGUKO PARANDA, neguko parandia izena. Pinzón real. Sin. **paseko paranda**.

NEGUKO TXITXI, neguko txitxixa izena. (Eibar) Anthus pratensis. Bisbita común.

NEGUKO TXORI, neguko txorixa adjektiboa. (Eibar) "Gogo gabe, bakarrik ibiltzen denari buruz esaten da. *Neguko txorixa dirudi, otzak kukulduta.*

NEGU-MADÁRI1. negu-madari, negu-madaríxa (c). izena. Pera de invierno. *Negu-madarixak Gabonak paiño lenao eltzen die*. Mota bat baino gehiago dago. **2. negu-madari, negu-madaríxa** (d). izena. (eufemismoa.) Guardia civil. *Aurten be Senpererakuan an zittuan mugan negu-madarixak*. Berdetasunagatik ziur asko. Bergaran gutxi erabilia; inguruetan gehiago.

NEGU-MÚTIL, negu-mutílla (d). izena. Neguan tripatruke etxean hartzen zen langilea. *Udazkenian etortzen zien lenao; negurako tenporadetan be bai. Neguan esate jakuen negumutílla. Tripatruke egoten zittuztan. Soldataik barik, tripatruke, negumutill. Da udan jornalera-ero, olaxe. Bertakuak seguramente, amengotxe zerak. Famelixa baten igual zeren ba iru seme eta bat etxian gelditzen zan, baiña bi igual ibilliko zien udan Araban, Naparruan teillegin ero eren lanetan, beste batzuk arrantzan itxasuan, da abar, eta gero negua etorritakuan ba etxera. Da etxian danendako, lau ero bost mutill daren lekuan ba geitxo zan, da gutxiao daukan batek negumutill, batzuk egurra preparau, lantein bat eiñ, zerak eitteko. Negumutill. Don.*

NEGÚTA, negutía (c). izena. Fringilla coelebs. Txonta. • Pinzón vulgar *Mutikuak negutia bota dau karabiniakin*. Don.k dio PINPIÑA ere esaten zaiola. Sin. txonta.

NEGUTA GORRI, neguta gorrixa (d). izena. NEGUTA PAPÁRGORRI. Pyrrhula pyrrhula.. Camachuelo común. Sin. **lorabotatzaille, txonta erreal**. Sin. **motatxóri**.

NEGUTE, negutia izena. "Negu sasoia. *Aurten ezagun da negute ona doiarrela, zelai danak berde-berde dare ta.*" (Lar Antz).

NEGÚTU (d). aditza. Eguraldiak negu itxura hartu. *Maiatzan bata eta zela negutu daben. Ezta zuza asko erneko.*

NEGU-ZÚZA, negu-zuzía (b). izena. . hydnum repandum. Ziza zuria. • Gamuza. Udazken-negu aldera gure pinudietan ugaria den perretxikoa. Azpian bizarra izaten du. Ona da jateko, baina lehor xamarra. Lehortzen utzi eta saltsei botatzeko ere erabiltzen da. Bilbo aldean oso estimatua. Eibarren **pago-zuzari** esaten zaio horrela.

NEI lk. **naí**.

NEIKUA lk. **naikúa**.

NEKAGÁRRI, nekagarríxa (c). adjektiboa. Nekatu egiten duena. • Se dice de las cosas que producen cansancio. *Oso nekagarrixa da azpi-etaratzia*.

NEKÁTU1. nekatu (b). da-du aditza. Cansar(se). *Gustoko lanian ezta nekatzen erdi galdurik egon da baina berriro indartzen ari da. Kantsau erabiliagoa da. Nekatu erdi galdurik egon da baina berriro indartzen ari da.***2. nekatu, nekatúa** (b). izena. Cansacio, fatiga. *Egundoko nekatua artu giñuan satsak etarutzen*. Sin. **kantsáu**.

NÉKE, nekía (b). izena. Esfuerzo físico. *Neke aundiko lana da ikazgintzia./ Ofizinako lanak eztauka nekeik, baiña badauzka bere alde txarrak*. Lanari buruz, batik bat.

NEKÉLAN, nekelána (d). izena. NEKALAN (ANTZ.), NEKEKO LAN. Neke handiko lana. *Orri be onezkeroko etxako komeni nekelanik*. NEK lk. **neketia**.

NEKESARI, nekesarixa izena. (Eibar) Salario.

NEKETIA (d). Neke-lana edo. Testuinguru honetan jaso dugu bakarrik: • Ik. **arilketa**. **Trangetia olgetia, ta ailketia neketia** esaera.

NEKÉTSU, neketsúa (c). adjektiboa. **NEKÓSO, ÚA**. Fatigoso, -a. *Ezta lan neketsua baiña bai gogaikarria./ Lan nekosua da kataekua./ Eizal baserri nekosua da oso e. JJP.* Ik. **kantsáu**.

NÉKEZ1. nekez (b). adberbioa. Con dificultad, difícilmente. *Nekez igo dau kotxiak aldapia.* Batzuetan, "arraroa litzateke" edo: *Nekez aaztuko jako ari zorionak emutia./ Nekez ikusiko zu aura txikituak pagatzen./ Nekez entzungo jatzu ari maldiziñoik.***nékez etórri** (c). esapidea. Berandu etorri. *Autobusa gaur nekez dator./ Aurten nekez etorri da negua./ Bagatoz, nekez baiña seguru.* **2. nékez, nekéza** (a). adjektiboa. Zaila. • Difícil. *Oso nekeza ei da alemana.* Sin. zail, gaitz (gutxiago erabiliak). Sin. **gáitz**. Ik. **fázill**.

NEKÉZTU (c). da-du aditza. Nekeza bihurtu, zaildu. • Volverse difícil, dificultar. *Nekeztu ein da lana billatzia./ Beltza izatiak nekeztu zotsan bizimodua.* Sin. **zailddu**. Ant. **erréztu, samúrdu**.

NEKOSO Ik. **nekétsu**.

NENE izena. (haur hizkera.) Esnea.

NEÓFITO, neófitua (d). adjektiboa. **LEÓFITO**. Neófito, novato. *Tratoriakin mugatik bera jausi da, neofito xamarra be bada ta.* Gutxi entzuna.

NERBIÓSO, -A, nerbiosúa, -ía (a). izena. Nervioso.

NÉRBIXO, nérbixua (a). izena. Nervio (bere adiera guztietan). *Nerbixo gutxiko persona./ Nerbixotatik ze moduz zabitz?/ Nerbixon bat dauka bizkarrazurrak arrapauta.*

NÉRBIXOTAKO, nérbixotakua (c). izena. Buruko gaitza. Hala deitu izan zaie eritasun psikikoei. • Llámase así a las enfermedades mentales. *Gazte-gaztetatik dago nerbixotakuakin./*

NÉRE, nería izenlaguna. Mi, mío. *Nun dago nere jertsia.* **Neria osoik eta zuria erdibana** esaera. (Antzuola) "Bost inporta bestiak." (Lar <i>Antz</i>).**nere artian** (b). esapidea. Nere baitan. *Nere artian esan neban: emen zeoze rarua pasatzen dok pa.***nere eguna** (b). Urtebetetze eguna. *Laster da nere eguna./ Zure egunian Lasara joango ga afaltzera.* Umeen, eta ez hain umeen, artean "nere zorionak" entzuten da orain barra-barra.

NEREGANDU Ik. **beregándu**.

NÉSKA, neskía (a). izena. Chica, muchacha. Don.k dionez, gutxi gorabehera neskatilla izango litzateke 13 bat urte arte, neska-koskor 8-13, neskagazte 13-23, eta neska hortik aurrera, neskazar bihurtu arte. Ant. **mútil**. Ik. **neskátilla**.

neská-mútiko, neská-mútikuak (b). izena. Neska eta mutikoa, familia bateko seme-alabez ari garenean, neska(k) eta mutikoa(k), bestelakoetan. 12-13 urte artekoei esaten zaie. Ik. neska-mutil.

neská-mútil, neská-mútilak (b). izena. Neska eta mutila, familia bateko seme-alabez ari garenean, neska(k) eta mutila(k), bestelakoetan.

Ze familixa daukazue? **néskak píxatzia** (d). (lagunartekoa.) Berpizkunde asteleheneko ohitura. Ez dakigu zehatz zer den. *Oitturia bai Paskua bigarren goz, gure aurrekuei entzuten: jaixak, San*

Martingo erromeixia ta gure aittak eta esaten juen erak gaztiak zien denporan neskak pixatzia; garizuman aber pixuan irabazi in daben. erromaniakin (barreak). Don. Uste dugu, besterik gabe, dantzarakoan neskei heltzeaz eta jasotzeaz ari dela. Urteko lehenengo erromeria izan ohi zen Paskua (Berbizkunde) astelehenez Ozaetako San Martinen egiten zena, eta mutilek neskak "pixatzeko" aprobetxatzen zuten, nonbait.

NESKA-LÓRA, neska-loría (d). izena. Mujer virgen. *Osorik dagona, loria, neska-loria. Neska-loría da ba sekula aprobau eztabena, osorik dagona. Don. Ik. bírgo.*

NESKAGÁZTE, neskagaztía (b). izena. Gutxi gorabehera 13-23 urteko neska. • Muchacha. Ik. **néska**.

NESKÁ-KÓSKOR, neská-kóskorra (b). izena. 8 urtetik 13 bat arteko neskatila, Donatoren arabera. • Muchachita. *Gure neska-koskorra ta zuena lagun aundixak die. Puxka bat koskortutakoa, alegia. Azen.: neska-kóskor, neska-koskórre ere bai. Ik. mutil-kóskor, néska, neskámotz, neskátilla, koskor.*

NESKÁLAGUNTZA, neskálaguntzia (b). izena. Neskari mutilak etxera laguntzea, baserrira batik bat, erromeria ostean eta. • Dícese de la costumbre *Ordubeteko bidian joan neskálaguntzera ta ordaiña, deskidau ezkerro, belarrondokua izaten zuan./ Beiñ neskálaguntzatik etxerakuan estatara jausi nitzuan.*

NESKAMA, neskamia izena. (Eibar) "Criada, sirvienta, chacha." (SB Eibetno).

NESKÁMOTZ, neskámotza (d). izena. Neska-koskorra. • Muchachita (se dice en tono cariñoso). *Nun ete dabill gure neskámotza.*

NESKA-PÁNPO, neska-panpóta (d). adjektiboa. Aurpegi potolo eta biribileko neska. Ik. **pánpot**.

NESKÁTA, neskátía (c). izena. El ligue, o su intento, por parte del hombre. *Zuen aittak gazte denporan neskátía besteik etxeukan buruan./ Makiña bat neskata eindakua zuan. ANDRATA, ANDRATAN, eta abar ere erabiltzen dira, gizon nagusiagoen artean eta emakume nagusiagoez aritzerakoan, batik bat. MUTILLETA, MUTILLETAN, GIZONETA, GIZONETAN eta abar ere, oso gutxi, baina entzun daitezke. **andráta, andratía** izena. El ligue, o su intento, por parte del hombre. NESKATA, NESKATAN, eta abar ere erabiltzen dira, gizon gazteagoen artean eta emakume gazteagoez aritzerakoan, batik bat. MUTILLETA, MUTILLETAN, GIZONETA, GIZONETAN eta abar ere, oso gutxi, baina entzun daitezke. Ik. **mutilléta. neskátan** (b). adberbioa. Ligatzen, edo hartan saiatzen, bederen. *Neskatan gogorra zuan Kaximiro. NESKATÁRA. Ligatzera. Goldenera joaten giñuztan neskatará. NESKATATIK. Neskatan ibilita gero. Neskatatik etxeruzkuan estatara jausi tta saietsa apurtu najuan.**

NESKÁTILLA, neskátillia (b). izena. Muchachita (13 bat urte artekoa, gutxi gorabehera). *Boluko neskátillia ta guria lagun aundixak die. Ik. néska.*

NESKATXIKI, neskaxikixa (d). izena. (eufemismoa.) (Eibar) Prostituta (euf.). *I, mutiko. Mesedez esango al deskuk Sin. tortola.*

NESKAZÁLE, neskazalía (b). adjektiboa. Neskak asko gustatzen zaizkiona. *Neskazalia, neskak gustatzen jakona, neska ondorian dabillena. Don.*

NÉSKAZAR1. néskaazar, néskaazarra (a). izena. Solterona. *Sasoi baten, beiñ 25 urte bete eta ezkontzeke egon ezkerro, neskazarra zían. Ik. mútilzar. 2. néskaazar, néskaazarra (d). izena.*

Gelatzaren hiru hankakoa.

NÉSKAZARTU (b). da aditza. Neskazahar bihurtu.

NEU (a). izenordaina. Ni-ren indartzailea. *Neu izan nitzan lapurra.*

NÉURE, neuría (a). izenlaguna. Nere-ren indartzailea. *Ni neurera ta kitto.*

NEUREGANDU Neureganatu.

Ik. **beregánderu**.

NÉURRI1. néurri, néurrixa (b). izena. Medida. *Artu neurrixak armaixua eitteko. néurrira* (b). adberbioa. A medida. *Len trajiak neurrira eitte zien. néurrixak artu* (b). aditza. Tomar medidas, tanto en su significado real como en el figurado. **néurrixan** (b). adberbioa. Con mesura, con moderación. *Neurrixan eran ezkeror ardauek on eitten dau./ Gure taillerrian neurrixan pagatzen joskuek da lana be neurrixan eitten juau. 2. neurri (?)* (d). aditza. Neurtu zentzuan grabatu zitzaion behin Hilariri. *Ta gero ori neurri zanian... Hil.* Ik. **sokakára**.

NÉURTU (a). du aditza. Medir. *Gaizki neurtu neban eta oiñ etxat kabitzen. "Mide dos metros": bi metro dauzka, bi metro da luze, edo horrelakoak esan izan dira eta ez "bi metro neurtzen ditu". Dena dela, orain entzuten da azkenengo hau.* Ik. **neurri (?)**.

NEURTZAILLE, neurtzaillia (c). izena. Medidor.

NEZESIDÁDE, nezesidadía (b). izena. Beharra. Necesidad. *Ze nezesidade dauka orrek jai egunian lanera juateko. Adinekoek asko erabilia. Biarek ez dituen ñabarduraren batzuk aurkitzen zaizkio, nonbait. Gure aita-zanak erretrau hau esan ohi zuen: "La nezesidá es la mejor nezesidá".*

nezesidadía pasáu (c). esapidea. Pobre bizi aro batean. *Orrek gaztetan nezesidadía pasautakuak die bai, eta oiñ errez urtengo dabe aurrera. nezesidadíak emon* (c). esapidea. Behar gorrian aurkitu. *Nezesidadiak emun ezkeror badakitt dirua nundik etara.*

NEZESÍTAU1. nezesitau (c). du aditza. Necesitar. Gutxi erabilia. **2. nezesitau, nezesitáua** (b). adjektiboa. Behartsua. • Necesitado. *Nezesitauenen artian bakarrik sorteau dittue etxiak.*

NI (a). izenordaina. Yo. *nere, neretako, nerekin...* Bergaran, NI eta NIK kenduta, besteak NE-z hasten dira: NERE, NERETAKO, NEREKIN...

NILLU Ik. **míllu**.

NÍNGUNU, -O, níngunua (d). izena. INGUNO (LAR ANTZ). Erreparua, eragozpena, aitzakia. • Impedimento, reparo, excusa. *Gauza bat itteko níngunua ipiñi dau arek; zera, erreparuak ipiñi dittuala. Ero eztau níngunuik ipiñi. Klem. NÍNGUNUA IPI* Ik. **erreparu**.

NÍSKALO, nískalua (c). izena. . Robellón, níscalo. Sin. **piñátela**.

NOBEDÁDE, nobedadía (b). izena. Novedad, noticia. *Ze nobedade dago Eibar aldian?/ Egundoko nobedadía izan zan telebisiñua.* Ik. **barri. nobedadia egin** (c). esapidea. (eufemismoa.) Konortea

galdu, zorabiatu. *Nobedadia ein jako elixan. (AAG Eibes) nobedádiak egon* (c). esapidea. Berri handiak: haurduntza, ezkontza, banaketa, hilketa... Solemnitatez esan ohi da. *Zer, nobedadiak dare ala?/ Eztabe deitzen da itxuria nobedaden bat badauke.*

NOBERA lk. **norbéra**.

NOBIENBRE, **nobienbria** (b). izena. Noviembre. lk. **zeméndi**.

NÓBIXO, **-A**, **nóbixua**, **-ia** (a). izena. Novio, -a.

Sarri NOBIXOTXO edo NOBIXATXO forma adierazkorra esaten da. *Neska-gazte kuadrillia, ta nobixotxuak ero i euzken. Ben./ Oiñezkero eukikok nobixatxon bat.nóbíxo-nóbixak* (c). Parejas de novios. *Len nobixo-nobixak Espoloira joaten zien pasiatzera.* Bikote bakarraz ere bai: Nobixo-nobixak il die akzidentian. lk. **ándragei**, **gízongei**. **nóbixotan** (c). adberbioa. Nobio garaian. *Akordatzen naiz bein nobixotan joan giñala Donostiara.*

NOIZ izena. **1. noiz** (a). adberbioa. Cuando. **2. nóiz ero nóiz** (b). adberbioa. De cuando en cuando, muy de vez en cuando. *Noiz ero noiz joaten ga zinera, baiña gutxittan. Noizian bein baino maiztasun gutxiagoz edo.*

NOIZBÁITTEN **1. noizbaitten** (b). adberbioa. Noizbait. • Alguna vez; en alguna época. *Noizbaitten orraitio moztu biakozu bizarra./ Noizbaitten erri inportantia izango zan Gatza.* **2. noizbaitten** (c). adberbioa. (adierazkorra.) Oso berandu, kostata. *Konpondu zoskuen etxeko bidia, baiña noizbaitten.*

NOIZÍAN BÉIÑ (a). adberbioa. De vez en cuando. *Noizian beiñ etortzen da bazkaltzera.* Jarraian datozenok Sin. dira neurri handi baten: Sin. **béiñ ero béiñ**, **béiñ ero bériz**, **lantzian béiñ**, **noizipeiñian**.

NOIZÍPEIÑÍAN (d). adberbioa. Noizik behinean, noizean behin. • De vez en cuando. *Noizipeiñian bakarrik kantatzen die antxiñako kantak.*

NÓIZKO **1. noizko?** (a). adberbioa. Para cuando? *Noizko konpondukostazu zapatak?* **2. noizko, noizkúa** (a). izenlaguna. De cuando. *Noizko ogixa da au?/ Periodikua badago baiña auskalo noizkua.*

NÓIZNAI (b). adberbioa. Edozein momentutan. • En cualquier momento. *Etxia noiznai jausteko arriskuan dago.*

NÓIZTIK (a). adberbioa. Desde cuando.

nóiztik nóra (d). adberbioa. (adierazkorra.) Desde cuando. *Noiztik nora die lagunak Mertxe ta Bixente?*

NÓIZTIKO, **nóiztikua** (d). izenlaguna. Noizko. • De cuando. *Noiztiko kontuak dauzkazue esateko?/ Noiztiko asuntua da ori?*

NOK lk. **nor**.

NOLA (c). adberbioa. (Elosu) Como. Bergaran ZELA esan ohi da ia beti, baina kalean eta Osintxu-Elosuko adinekoek badarabilte NOLA. *Oiñ nola billauko juau guk atzera bidia? Illunduta ta, jangoikua lagun. Mertz.*

NÓLA TA NÁI BE (c). juntagailua. NOLATANAI BE, NOLANAI BE. Nolanahi ere. • De cualquier forma, de todas maneras. *Milak eztau oinddio telefonoik jo; nola ta nai be ondo ibilliko da, ze bestela diar eingo zeban./ Eztakitt ze ordu dan; nola ta nai be ezin berandua izan.* Sin. **edozeía be, edozetara be.**

NOLA-ALAKO lk. **zéla-aláko.**

NOLABAITT lk. **zelábaitt.**

NOLABAITTÉKO lk. **zelabaittéko.**

NÓLANAI (c). adverbioa. Edozela. • De cualquier manera. *Pelotia ezkerrez, eskumaz, nolanaí joten dau.* Testuinguru batzuetan «de mala manera». Ezin dda ikastolara joan etxeko lanak nolanaí eindda. Sin. edozein modutan. Sin. **edozeía.**

NÓLANAIKO (c). izenlaguna. Edozein modutakoa, arrunta. • Corriente, ordinario. *Aura sonbreruakin da bastoiakin ibiltze zuan. Ez pentsau nolanaikua zanik.* EZ IZAN NOLANAIKUA, ia beti. Arrunta ez izan, dotorea edo berezia izan. Ezezko esaldi adierazkor edo ironiazkoetan, batik bat. *Orrek eztittu nolanaiko mozkorrak arrapatzen.* Sin. **edozeíaiko.**

NONO, nonúa (d). izena. (haur hizkera.) (Oñati) Ardia. (haur).

NOR (b). izenordaina. Quién. *I izan aiz etxian? Ez? Nor ero nor etorri dok pa.* Ubera-Angiozar aldean erabiliagoa erdi-ekialdean baino, eta adinekoek gehiago gazteek baino. ZEIN da nagusi bergarar gehien ahotan. NOK da ergatiboa. Nok esan dau ori? lk. **baten bat, nórbaitt.**

NÓRA (a). adverbioa. A donde. Anizetak NORA JOAN zentzuaz erabili du: *Eztakitt nora zan, sekula geixao nora danik...* lk. **erríko. nora ero ara** (c). adverbioa. Norabait. • A alguna parte. *Gailleguak nora ero ara joan biar, da Ameriketara joate zien geixenak./ Urtero juaten ga udan nora ero ara./ Oiñezkero gure turistak nora-nora aillegau die./ Ointxe nora-nora mobidu biarran gare etxe billa.* Arrunta oso adinekoen artean. lk. **núndik.**

NORAEZÍAN (c). adverbioa. Nora ezean, nondik nora dabilenik barik. • Perdido, desorientado. *Laiñua sartu jakun da ordutan ibili giñan noraezian.*

NORÁIÑO (a). adverbioa. Hasta donde.

NORÁIÑOKO, noráiñokua (b). izenlaguna. Zein tokitarainokoa, zenbaterainokoa. *Noraiñoko kablia da au ba?/ Eztakitt noraiñoko interesa dauken aurrera jarraitzeko.*

NORÁKO, norakúa (b). izenlaguna. Zein tokitarakoa. *Norako autobusa da au?* lk. nundik norako s.v. nundik.

NÓRANAI (c). adverbioa. Edozein lekutara, edonora. • A cualquier parte. *Zurekin noranaí joan leike./ Aintxiñan, leitzen da eskribitzen jakiñ ezker, noranairako mutillak.*

NÓRBAITT (b). izenordaina. Bateon bat. • Alguien. *Norbaittek badaki ze pelikula botatzen daben?* Azen.: norbáitt ere bai. lk. **baten bat, nor ero nor, iñor. norbaitt izan** (c). esapidea. Norbait inportantea edo errespetuzkoa, izan. *Poliziak saludua ein ddotsa ta ori be izango da norbaitt./ Biar ero etzi norbaitt izan nai dabenak estudixau ein bia dau.*

NORBÉRA (b). izenordaina. NOBERA, NORPERA. Cada uno, uno mismo. *Norberak ikusi bia dau bere buruakin ze eiñ./ Bestiak gaixki darenian nobera be ezta gustora egoten./ Dana norperak bakarrik ein biar. Enr./ Markak belarrixan bai, ori noberan errebañukua bada. Luis Hiruretatik Bergaran NOBERA izango da agian esanena.***norberan burua erakutsi** (c). esapidea. Nork bere burua nabarmendu.

norberan ez egon (c). esapidea. Norberarengan, norberaren esku ez egon. *Trankill egoteko esaten doste, baiña ori eztago norberan eta.***norberán kóntura** (b). A cuenta propia.

*Gaur egunian iñor eztoia noberan kontura taillerra ipintzera./ Autobusa ta hotela ajentziak ipintzen dau ta beste guztia norberan kontura***norberána eiñ** (c). esapidea. Norberarena egin. • Hacer lo que le interesa a uno, egoístamente. *Askoi, norberana eiñ ezkerro bestienak pito bat ardura dotsa.*

NORBERANDU aditza. "Norberarengana ekarri, norberaren interesetara jendea konbentzitu. *Taldetan beti egoten da norberantzen daben jendia.*" (Lar Antz).

NORBERANÍSMO, norberanismúa (c). izena. Frankismoaren amaierako eta ondorengo urtetan asko eztabaidatzen zen sozialismoa, kapitalismoa, komunismoa, eta horrelako gauzez. Baina askok zion hemen zegoena "norberanismoa" zela: "Lenengo norberana aurrera etara eta bestiak allakuidaos". • Término humorístico surgido en la época de la transición para denominar el sistema o tendencia vigente: el egoísmo. *Sozialismua, ta sindikalismua ta kristua; amen dagona norberanismoa dok, norberanismoa, lenengo norberana eiñ eta bestiak izurrau daittiela.* Baliteke gaur egun ia ahaztua egotea, sortzen den argota eta gisa honetako hitzak galtzera egiten dutelako giro faltaz.

NÓRDE, nórdia (d). izena. Viento del Noroeste. *Nordiak joten dau ta laster da eurixa.* Elosun bada auzo bat, Osintxu aldera begira dagoena, **Norde-auzua** edo **Norde-baztarra** izenekoa. Ik. **ipar**.

Nordian argitasuna eta pobrian arrotasuna, berdintsuak esaera. (Eibar, Elgeta) Biak eskaxak. (SM Ezten).

NOR ERO NOR izenordaina. Norbait. *I izan aiz etxian? Ez? Nor ero nor etorri dok pa.*

NORGÉIXAGOKA (d). adberbioa. NOR GÉIXAGOKA. Nor gehiagoka, desafioka. • Desafiando. Bi hitzetan esana entzun dugu bakarrik: An zebillen nór géixagoka.

NÓRMAL1. nórmal, normála (a). adjektiboa. Normal. *Asarre dago, normala dan moduan./ Ezta persona normala.* Ik. **natural**. **2. nórmal** (a). adberbioa. Con normalidad. Baita, "ez ondo eta ez gaizki": normal. **normalían** (b). adberbioa. Normalmente. *Nik normalian eztot armozatzen./ Normalian ezta olako uskerixa bateaittik asarretu izan.* **normalían ibílli** (c). esapidea. Lan orduketa ohizkoan jardun, goiz eta arratsalde, alegia. • Trabajar de mañana y tarde. *Len iru errelebotan ibilli nitzuan, baiña oiñ normalian najabik./ Goizez, atsaldez, errelebuan, normalian... danetik ibilita najaok.* Ik. **errélebo**.

NORMÁLDU (b). da aditza. Normalizarse. *Bilbo aldia uraundixak ezkerro ezta normaldu.*

NÓRNAI (d). izenordaina. Cualquiera. *Ez pentsau ori nornai danik.* Gutxi erabilia. **Edozeiñ da arrunta.**

NORPERA Ik. **norbéra**.

NORTE1. nóрте, nórtia (b). izena. Norte.

Sin. **ipar. 2. nórtte, nórtia** (c). izena. Viento del norte. Sin. ipar-aize. Sin. **ipar**.

NORTE-AIZE, norte-aizía (c). Viento del norte. Sin. **ipar, nórtte**.

NÓRUTZ (b). adberbioa. Noruntz, norantz. • Hacia dónde. *Norutz artu dau erbixak?* Ik. **norúzko**.

NORÚZKO, noruzkúa (b). izenlaguna. Noranzkoa. • De hacia donde. Bergarako kaletarren artean, batez ere, bada erabilera ez oso zuzen bat: "noruzko zoiazte" edo "etxeruzko goiaz" entzuten da, "norutz zoiazte" edo "etxerutz goiaz" beharrean. Ik. **nórtutz**.

NÚMERO, númeroa (a). izena. Número. Ik. **lúmero**.

NUN (a). adberbioa. Dónde.

nun dán bez (c). esapidea. Arrastorik ere ez. • Ni rastro. *Neri e (Ezkiogan) guarsola galdu jatan, guarsola (sic) arbola gañian neukan, belaunbiko, da kitto. Nere guardasola nun dan bez.*

Amabirjiñak erungo-ban a, a amabirjiñiak erueban zera, zerura. Fran. (AA BergEus 347. o.). **nún**

ero nún (c). adberbioa. (adierazkorra.) En alguna parte. *Nun ero nun egongo die kutxak merke erosteko moduan./ Nik ikusi dot neska ori nun ero nun.* Ik. **nunbáitten**.

NUNÁI (b). adberbioa. Nonahi, edozein lekutan. • En cualquier sitio. *Basuan nunai topaukoittuzu perretxikuak.*

NUNBAITT juntagailua. "Por lo visto. *Pastilla mordo bat artzen dot eta nunbaitt arekin bizi naiz.*" (Lar Antz). Sin. **ítxuria**.

NUNBÁITTEN (b). adberbioa. En alguna parte. *Nunbaitten laga nittuan giltzak eta eztakitt nun.*

Nunbaitteko, nunbaittetik, nunbaittera, nunbaitteraiño. Ik. **nún ero nún. nunbaittetik**

nunbaittera esapidea. "Galduta edo noraezean (ibili)." (Lar Antz). Sin. **andakatik mundakara ibilli**.

NÚNDIK (a). adberbioa. De donde.

núndik ero ándik (b). esapidea. (adierazkorra.) Nonbaitetik. *Nundik ero andik konsegidu dau nere telefonua./ Ointxe nun ero nundik jirau biot ordenadore zar bat.* **núndik nóra1. nundik nora** (b).

adberbioa. Por donde. *Nundik nora ete dabitz gure beixak.* **2. nundik nora** (b). adberbioa. (

adierazkorra.) De dónde. *Eztakitt nundik nora sortu dan foiloi au./ Nundik nora ete dabill orrek*

ainbeste diru? **núndik noráko** (c). adberbioa. (adierazkorra.) De qué procedencia u origen. *Nundik norakuak zittunan zuekin zebitzen mutillak?/ Nundik norakua da Land Rover ori.*

NUN ERO NUNDIK Ik. **núndik ero ándik**.

NÚNGO, nungúa (a). izenlaguna. De dónde. *Nungua za? galderari, joan da bertakua erantzun ohi zaio.*

NUN GOGUA AN ZANGUA esaera. "Nahi dena egiten denean esaten da."